



Santa Barbaran zerbitzu berria

- **2_ Udal-gai nagusia**
_Arau subsidiarioak
- **12_ Herriko gai nagusia**
_Santa Barbara
- **18_ Erreportaia**
_Urretxuko txistulariak 50 urte
- **20_ Elkarrizketa**
_Kaixo 100 ale



Planeamenduko Arau Subsidiarioen funtsezko aldaketak berriro izan dira jendaurrean ikusgai



Kaixo 100. alea
2010eko martxoan
Urretxuko Udal Aldizkaria

Ale honetako laguntzaileak:

Aztiker, Jesus Mari Alberdi, Iñaki Arriaran, Sara Arrizabalaga, Gorka Azkarate, Irene Calvillo, Miren Castillo, Jon Castrillo, Miguel Cristobal, Begoña Etxaniz, Rosa Etxaniz, Ana Isabel Iturbe, Unai Lazkano, Urtzi Mendizabal, Ana Ovejas, Maite Quevedo, Koldo Telleria, Kizkitza Ugarteburu, Mari Carmen Viedma

Argazkiak:

Azala: LUIS ANGEL TELLEZ

Barruko argazkiak: LUIS ANGEL TELLEZ eta KAIXOko LAGUNTZAILEAK

Lege Gordailua: SS/678/93

Konposaketa: ERROTAPRINT Inprimaketa: IPARRAGIRRE, S.A.

Tirada: 3.400 Ale

KAIXOek ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Ez bazara Urretxun bizi eta KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, eman zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota kultura.ur@urretxu.net helbide elektronikoan.

Si no vives en Urretxu y quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en kultura.ur@urretxu.net.

Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketak agiriak oso prozesu sistematizatua eraman du eta kontsentsua lortzeko hiritarrek, eragile sozialek, Udal teknikariek eta Udal ordezkariak hartu dute parte. Ezarritako helburu garrantzitsuenetako bat betetzen du, ez baitu lurzoru berririk hartzen.

Urtarrilaren 25ean Udal Osoko Bilkurak Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketak agiria bi hilabetez jendaurrean ikusgai jartzea onartu zuen. Baita ere erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiari behin betiko onesteko eskumena eskuordetzeko eskatzea, hori egin

baino lehen, bere garaian eskatutako eta Diputatuen Kontseiluak 2007ko azaroaren 20an erabakitako izapidetzearen etendura ezereztuz. Herriaren nahia batuz, Urretxuko hazkunde iraunkorra bultzatzen du Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketak agiriak, dagoeneko hiritartuta dagoen lurzorua erabiliz eta berririk hartu gabe. XXI. mendean egokitutako planeamendua egituratzen du, hurrengo 30 urteetako ardatz nagusiak baliatuz Urretxu etengabeko modernizaziora eramateko.

Etxebizitza herri bateko zutabe garrantzitsua izanik, agiri berriak babestutako eta tasatutako etxebizitzak bultzatzen ditu errotazioa eta alokairua erraztuz, kontuan hartuta hori eskatzen duten sektoreak haziz doazela. Etorkizuna bermatzeko ahalegina ere egiten du, hezkuntza instalakuntzentzako kokapen egokiaren bitartez eta aparkalekuaren arazoari ere konponbidea ematen dio. Horrekin eta aisialdirako aurreikuspen dituen berde guneekin, urretxuarren bizi kalitatea nabarmen hobetzen du.

Jarduera ekonomikoa ere oso kontuan hartzen da. Industriak eta enpresa ekimenak berebiziko garrantzia izan dute Urretxuko historian eta ahalegin berezia egiten da dagoena mantentzeko, ekimen berriak erakartzen diren aldi berean. Irimo ingurua proposatzen da I+G+b jarduerak hartzeko. Eta hori izan zen, Irimo hain zuzen, arau subsidiarioen inguruko parte-hartze prozesuaren lehen fasean iritzi gehien sortu zuena. Ba Irimori buruz ere erabaki berri bat hartu da eta alde horretarako garapena ahalbidetuko duen plan berezia diseinatuko da. Bestalde, aurreikuspenen arabera, Urretxuko industria eremua Beasain-Durango komunikazio ardatzaren inguruan kokatuko da.

El nuevo documento de Variaciones de la Revisión de las Normas Subsidiarias de planeamiento es fruto de un amplio proceso de participación que ha desembocado en decisiones consensuadas.

Ekonomiaren beste zutabe bat den herri barruko merkataritzak indarberritzeko aukera du arau berriekin, besteak beste aparkalekuaren arazoa konpontzeko ahaleginak bereziak direlako eta merkataritza gunearen inguruan berde gunek proposatzen direlako. Bizi bizirik egon behar duen eremu honek oinezkoen eremua izango da batik bat, oinezkoek izango dutelako lehentasuna eta hiritartzearen egitura eurentzat pentsatuta egongo delako espaloi egokiekin, aisialdirako tokiekin, berdeguneekin eta abar.

Nekazaritzari eta abeltzaintzari dagokienez, planeamendu berriak dio horretara bideratuta dauden lurzorua babestu behar direla jarduera horiek iraun dezaten eta zaindutako paisaia izaten jarraitzeko.

Urtarrilaren 25ean onartu eta Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero, bi hilabetez guztien eskura izan da informazioa, egoki ikusi duten hiritar, enpresa edo eragilek alegazioak aurkezteko.



Udal-gaiak / Temas municipales

Udaltzaingoa

Hiru udaltzain berri

Duela hilabete batzuk Urretxuko Udalak hiru udaltzain lanpostu betetzeko deialdia egin zuen. Aukeraketa prozesuaren ondoren, hiru udaltzain berri ditugu lanean herrian:

Aukeraketa prozesu honetan, bi lanpostu lehendik Udaltzaingoan lanean zeuden bi lagunek lortu dituzte, Unaik eta Xabik hain zuzen ere. Hirugarrena, berriz, Jokinentzat izan da.

Jokin zumaiarra da eta 27 urte ditu. Hona etorri aurretik, Legazpiko Udalean aritu da udaltzain lanetan.

Oposaketan osatutako lan-poltsatik Mario eta Borja aukeratu dira Udaltzaingoak dituen beharrak betetzeko. Mario gasteiztarra da, arabarra beraz, eta 28 urte ditu. Borja, berriz, Bizkaitik dator, Galdakaotik hain zuzen ere, eta 27 urte ditu.

Udaltzain berri hauek plantilan izan diren baja eta



beharrak betetzeko sartu dira. Udalak plantila indartsu bat osatzeko egiten duen apustua da hau.

Argazkian hiru lankide berriak agertzen dira (ezkerretik eskubira): Jokin, Borja eta Mario.

Idazkaritza

Ordenanza para la celebración de despedidas u homenajes civiles por fallecimiento



El Ayuntamiento de Urretxu el 9 de noviembre de 2009 aprobó la Ordenanza reguladora para la celebración de despedidas civiles por fallecimiento, que entró en vigor el pasado 16 de enero.

familiares, amistades, organizaciones de la sociedad civil de Urretxu quieran realizar a sus difuntos como homenaje o despedida, utilizando locales municipales.

Para ello se deberá presentar una solicitud, indicando los datos de quien realiza la solicitud, y del difunto, hora de preferencia para celebrar el acto, y material necesario.

El horario del acto será de lunes a domingo, de 9:00 a 14:00 y de 17:00 a 21:00 horas, y el lugar será el que al efecto designe el Ayuntamiento.

Con esta Ordenanza el Ayuntamiento ha querido dar respuesta a una necesidad social cada vez más demandada, como es la de ofrecer una ceremonia a aquellos ciudadan@s que han escogido vivir sin religión.

Ingurugiroa

Hondakinen prebentzioa: plastikozko poltsak gutxitzeko ekimena

Herralde garatuetan hainbeste erabiltzen diren plastikozko poltsak ingurugiroari arazo ugari sortzen ari dira ibai, aintzira eta itsasoetan, eta baita ere bertan bizi diren espezie bizidun askori, mende erdi baino gehiago irauten baitute degradatu gabe.

Daukaten forma eta pisuarekin, plastikozko poltsak haizeak eraman eta sakabanatu egiten ditu. Zuhaitzen adarretan trabatzen dira, handik hona noraezean ibiltzen dira lurrean zehar eta askotan uretan amaitzen dute. Honela, itsasoko metro kubiko batak 12.000 plastikozko partikula ditu. Azpiegituretan ere arazoak sortzen dituzte, herriko estolderia blokeatuz eta uholde arriskua sortuz.

Biztanle bakoitzak urtean 238 plastikozko poltsa kontsumitzen ditu batzaz beste. Horrek esan nahi du hasiberri den 2010. urte honetan Euskal Herrian

595.000.000 plastikozko poltsa joango direla zaborretara.

Arazo hori konpontzen laguntzeko, Urretxuko Udalaren asmoa da plastikozko poltsak gutxitzeko ekimena abian jartzea, poltsa bererabilgarriak dendetan banatuz, honekin batera herriko merkataritza ere bultzatuko litzatekeelarik.



Hirigintza

Nuevos proyectos en marcha



Dentro del Programa “Fondo Estatal para la Promoción del Empleo y la Sostenibilidad Local”, y al objeto de su financiación, este Ayuntamiento ha presentado los siguientes proyectos:

- Construcción de depósito de agua potable en la zona de Santa Bárbara: Se trata de captar las aguas provenientes de varios manantiales para mejorar el abastecimiento a los caseríos y edificios de la zona, aprovechando, además, el agua sobrante para el llenado de los vasos de las piscinas municipales.
- Reforma biblioteca-Kzgunea: Se trasladará el Kzgunea al local contiguo a la biblioteca municipal (antiguo EPA), ampliando ésta, y conexionando ambos servicios.
- Reforma del Ayuntamiento 1ª Fase: Se pretende ampliar el semisótano hasta el límite de parcela para albergar el archivo, policía municipal, vestuarios e instalaciones, así como adecuar la planta baja y accesos.

Dendariak saritzeko kanpaina

la-ia lau urte igaro dira Urola Garaia Mankomunitateak eskualdeko merkataritzan euskararen erabilera bultzatzeko plana martxan jarri zuenetik; plan horren barruan hainbat ekintza gauzatu dira urteotan, eta azken ekimena hain zuzen ere, dendariak saritzeko kanpaina izan da, abenduaren 3tik urtarrilaren 7ra bitartean egin dena.

Eskualdeko herrietako euskara elkarteak izan dira ekimenaren sustatzaile, udaletako euskara zerbitzuekin eta EMUN elkartearekin elkarlanean; aipatutako denboraldian zehar, kutxa batzuk egon dira dendetan jarrita, eta dendariak euskararen alde izandako jarrerari botoa emateko aukera izan dute bezeroek.

Horrenbestez, bezeroek botoa emateko epea amaitu ondoren, dendetako kutxak jaso dira, eta kanpainaren emaitzak ezagutu genituen joan zen urtarrilaren 20an, Urretxuko kultur etxean egin zen ekitaldian.

Guztira, eskualdeko 195 dendari izan dira partaide, eta beste 702 bezerok eman dute euren botoa, beti ere dendariak euskararen alde erakutsi duen jarrera saritu nahian. Urretxuri dagokionez, 56 dendarik hartu dute parte.

Botoa emateko garaian, hiru maila edo kontzeptu bereiztu dira sariketa honetan: alde batetik, zerbitzua guztiz euskaraz ema-

ten duen dendaria; bestetik, euskaraz jakin ez arren, bezero euskaldunari entzuteko edo ulertzeko egindako **ahalegina**; eta azkenik, euskararen alde erakutsi den **jarrera** (paisaia, ...).

Goazen, bada, denda sarituen izenak ezagutzera (Urretxu eta Zumarraga):

- Zerbitzua guztiz euskaraz: Apalategi kirol jantzi denda
- Ahalegina: QUO estetika zentroa
- Jarrera: Kahunas kirol jantzi denda

Horietako dendari bakoitzari udalek 100 euroko erosketa-txartela erosi diote, eta kanpainan parte hartu duten bezeroen artean zozketatu dira erosketa-txartel horiek.



Kirol eta kultur elkarteetan euskara sustatzeko plana

Herriko kirol eta kultur elkarteetan euskararen erabilera sustatzeko plana jarri zen martxan duela hilabete batzuk.

Aurreikusita zegoen bezala, datu bilketa eta diagnosia egin dira lehenengo hiru hilabeteetan, eta ondoren elkarte bakoitzak helburu jakin eta zehatz batzuk betetzeko konpromisoa adierazi du, beti ere euskaraz egiten dutena baino zertxobait gehiago egiteko asmotan.

Diagnosiaren ondorioz, garbi geratu da egoera eta errealitate oso desberdinak ditugula herriko elkarteetan euskararen erabilerari dagokionez. Badira

batzuk eguneroko jardunean guztiz euskaraz aritzen direnak; beste batzuk, berriz, zailtasunak dituzte maila apal batean ere euskara erabiltzeko; baina aitortu beharra dago guztiek azaldu dutela jarrera positiboa, eta ahal duten neurrian euskara gehiago erabiltzeko borondatea.

Ekimen honek aurrera egingo du datozen hilabeteetan, eta elkarteek hartu dituzten konpromisoei jarraipena egingo zaie. Horretarako ezinbestekoa izango da udal-teknikarien eta elkarteetako kideen arteko elkarlana.

Gizarte ekimena

Novedades en el Centro de Día de Urretxu

Uno de los objetivos para este año 2010 es mejorar el programa de actividades que se realiza tanto dentro del centro como fuera de él. Nuestro fin es que el Centro de Día de Urretxu sea un servicio abierto y participativo en la vida social del pueblo. Para ello, mensualmente se organizarán varias actuaciones para que aquellos grupos de teatro, baile, música... de la comarca puedan ofrecer y enseñar de primera mano lo que hacen a los usuarios del Centro de Día.

También está previsto realizar excursiones y salidas a aquellos lugares de interés que tenemos en Urretxu, Zumarraga y alrededores (como el Museo de la Abeja, la iglesia de Santa Bárbara, La Antigua...) así como realizar salidas a ferias, exposiciones y diversos actos que se llevan a cabo en Urretxu a lo largo del año.

Desde el pasado 16 de noviembre de 2009 el Centro de Día cuenta con una Comisión de Familiares, formada por dos familiares, un representante de los Servicios Sociales del Ayuntamiento y otro de la empresa gestora Hakeru S.L. Dicha comisión se reunirá como mínimo dos veces al año y

pretende ser un órgano de consulta y participación de los usuarios y sus familiares.

Por otro lado, nos gustaría informar que se va a instalar en el Centro de Día un Aparato Desfibrilador para que pueda ser utilizado en caso de urgencia (tanto para los usuarios de Centro de Día como para aquellos vecinos que se encuentren en el Hogar del Jubilado). Para su adecuado manejo, el personal del centro recibirá formación específica para su uso.



Etxebizitza gastuetarako osagarria



2010eko urtarrilaren 1etik dirulaguntza berria dago indarrean. Etxebizitza alokairuan duten Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunei zuzenduta dago laguntza. Orain arte, alokairurako dirulaguntza GLL-n (Gizarte Larrialdietarako Laguntza) bidez ordaintzen zen, iaz Urretxun 41 onuradun izan ziren. Aurrerantzean GLL-k urgentziazko gastuetara bideratuko dira.

Etxebizitza Gastuetarako Osagarria 250 eurokoa izango da orokorrean; bi semealaba baino gehiago dituzten familien kasuan, edo etxeke norbait lanean ari den kasuan laguntza 320 eurokoa izango da.

Udal-gaiak / Temas municipales

Kultura

2010 urterako dirulaguntzak

2010. urterako Kultura Sailak dirulaguntza programa zabaldu egin du eta aurtien hiru ildo izango ditu:

- 1.- Kultura elkarteei urteko egitarauak edo/eta ekintza bereziak garatzeko dirulaguntzak.

Helburua Urretxuko jai eta kultur ekintzak bultzatzeko programei emango zaizkien laguntzak arautzea da. Laguntza ekonomiko hauek irabazi-asmorik gabeko taldeei emango zaizkie 2010ean jai eta kultur programa eta ekintzak aurrera eramateko, beti ere proiektu eta ekintza hauek bat badatoz Kultura eta Jai Batzordearen asmoekin.

- 2.-Urretxuko tabernetan euskarazko antzezpenuk,

musika ikuskizunak edo beste edozein kultura adierazpen egiteko dirulaguntzak emateko oinarriak.

Xedea tabernetan gazteei zuzenduta euskaraz egiten diren aisialdiko jardueren eskaintza bermatzea da, programatutako jarduera horietatik ondorioztatutako kostuen zati bat diruz lagunduz

- 3.-Film laburrak edo/eta bideoklipak egiteko dirulaguntzak emateko oinarriak.

Xedea honako hau da: film laburren edo/eta bideoklipen garapen eta ekoizpen prozesuek berekin dakarten sormenezko adierazpena sustatzeko laguntzak ematea, jarduera horretatik ondorioztatutako kostuen zati bat diruz lagunduz.

Gazteria

Nerabeentzako zerbitzu berria

Urretxu eta Zumarragako udalek nerabeentzako zerbitzua ari dira lantzen. Lanketa prozesua 2008ko urtean hasi zen Udalek Gazteri arloa garatzeko aholkularitza eskaera egin ziotenean Gipuzkoako Foru Aldundiari. Honek haur eta

nerabeen egoeraren diagnostiko bat burutzea eta ondoren lan proposamen bat zehaztea ekarri zuen, 2009tik aurrera garatzen ari dena hain zuzen ere. Lehenengo helburua Nerabeentzako Zerbitzua zehaztea izan zen eta horretarako ezinbestekoa zen nerabeen parte hartze zuzena izatea. Hilabete hauetan beraien behar eta interesak mahai gainean jartzeko aukera izan dute. Datu hauek eta lortu nahi diren helburuak oinarri modura hartu dira zerbitzu berria definitzerakoan.

Aurreikusita dago modu honetan jartzea martxan:

Noiz: 2010eko udazkenean

Non: Jauregi kaleko 10. zenbakidun lokalean (Iparragirre plaza)

Norentzat: 12-17 urte arteko gaztetxoentzat



Zerbitzuaren helburu nagusientakoa nerabeen aisialdia ahalik eta giro osasungarrienean garatzea da, parte hartzea, sormena, elkarren arteko harremanak, norberaren autonomia eta beste hainbeste balore positibo bultzatuz, hori dena modu atsegin, dibertigarri eta erakargarrian.

Turismoa

Gernika homenajeó a José María Iparragirre

El pasado 13 de marzo se colocó en la confluencia entre las calles Pablo Picasso y Adolfo Urioste de Gernika una escultura de dos metros de alto representando la figura de Iparragirre con su guitarra. Al acto asistió el alcalde de Urretxu y en el mismo actuó la coral "Gaudemus" de Gernika que interpretó varias canciones de Iparragirre, entre ellas el Gernikako Arbola.



Kontuhartzailletza

Exención en el impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica



Modificación de la Norma Foral 14/1989 , de 5 de julio, reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica y que ha entrado en vigor el día 1 de Enero de 2010.

La modificación del artículo 2.1 e) queda redactada de la siguiente manera:

Estarán exentos del Impuesto:

- Los vehículos para personas de movilidad reducida a que se refiere la Letra A del anexo II del Reglamento General de Vehículos, aprobado por Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre, matriculados a nombre de personas con discapacidad.

- Asimismo, están exentos los vehículos de menos de 14 caballos fiscales, matriculados a nombre de personas con discapacidad para su uso exclusivo. Esta exención se aplicará en tanto se mantengan las circunstancias, tanto a los vehículos conducidos por personas con discapacidad como a los destinados a su transporte.

A efectos de lo dispuesto anteriormente, se considerarán personas con discapacidad las siguientes:

- Aquellas personas que tengan reconocido un grado de minusvalía igual o superior al 33% e inferior al 65% que se encuentren en estado de movilidad reducida, entendiéndose por tales las incluidas en alguna de las situaciones descritas en las letras A, B, o C del baremo que figura como Anexo del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración o calificación del grado de minusvalía o que obtengan 7 o más puntos en las letras D, E, F, G o H del citado baremo.
- Aquellas personas con un grado de minusvalía igual o superior al 65%.

Enplegua

Merkataritza

Urretxu eta Zumarragako udalek, Bitartean eta Uggasarekin batera, merkataritzako lan-mahaia osatu zuten 2008. urtean, bi herrietako merkataritza bultzatzeko helburu nagusiarekin. Honen bidez, zenbait ekintza antolatu dira orain arte eta horretan jarraituko dute. 2010. urteari begira honako hauek aurreikusten dira:

- Bi herrietako dendak agertuko dituen gida bat osatzen ari da, baliabide bihurtu dadin, bai bertakoek eta bai kanpotarrek hemengo eskaintza ezagutu dezaten.
- Ekintzak: stock feria, museoa kalean, kultura dendetan eta gabonetako ekintzak, urtean zehar egingo direnak.



2009_10_26

XXIV. Udazkeneko musika zikloa

XXIV udazkeneko musika zikloaren egitaraua eta dagokion aurrekontua onartzen dira, guztira 9.170 €.

XXII. Mineralogia eta Paleontologia Astea

Aho batez erabaki da, XXII Mineralogia eta paleontologia astearen egitaraua eta aurrekontua, 27.911 €, onartzea.

Altzariak zaharberitzeko ikastaroa

Aho batez onartu da altzariak zaharberitzeko ikastaro bat egiteko proposamena eta bere aurrekontua, 840 € onartzea.

Ahozkotatua eta bertsolaritza proiektua

Bertsolaritzaren hainbat teknika erabiliz, ikasleekin ahazkotatua lantzea izango da proiektu honen helburua; ikasturte honetan zehar Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako ikasleekin lan egingo da.

Aho batez proposamena eta dagokion aurrekontua, Urretxuri, 2.929,28 € onartzen dira.

Ikasle etorkinen euskara maila

indartzeko saioak

Ikasle etorkinei eskolaz kanpoko errefortzu saioak eskaintzeko proposamena eta gastuen aurrekontua, 12.607,50 €, onartzen dira.

Gaztezulo: Harpidetza kanpaina

Erabaki da Gaztezulo aldizkarirako harpidetza kanpaina (DBH 4. mailako ikasleen artean Gaztezulo aldizkarirako harpidetza sustatzeko kanpaina bati buruzkoa; horretarako, sei hilabete zehar beste sei ale jasoko dituzte dohainik, horren kostua Udalak hartuko duelarik bere gain) eta Urretxuri dagokion gastua onartzea, hain zuzen ere 373,43 € zenbatekoa.

Euskararen erabileraren kale neurketa

Herrian euskararen erabilerari buruzko neurketa egiteko proposamena onartzea da, baita ere bere aurrekontua 1.546,13 €.

Eguneko zentroa: Garraioa

Aho batez onartzen da, 26.765,14 € zenbatekoa ordaintzea Urola Garaia Mankomunitateari, 2009ko bigarren hiru hilabete zehar Eguneko Zentroari emandako garraio zerbitzuarengatik.

VIII. Duatloia Zumarraga-Urretxuri:

Dirulaguntza

Onartu da Zumarraga-Urretxuri VIII Duatloia egiteko, 421,70 euroko dirulaguntza ematea Euskadiko Triatloi Federazioari.

Urretxuri argiteri publikoa:

Kontratu txikiaren esleipena

Erabakitzen da Argiteri publikoaren ikerketa egiteko lanak UGLEri esleitzea, aurkeztutako eskaintzaren arabera eta prezio honetan: 5.500 € + 880 € BEZ = 6.380 €.

Arau Subsidiarioen inguruan hausnarketa prozesua esleitzea.

Aho batez erabakitzen da Arau Subsidiarioen inguruan hausnarketa bateratu baten prozesua errazteko LKS enpresari esleitzea, hauek aurkeztutako eskaintzaren arabera, eta honako baldintzetan:

Kontratuaren prezioa: 12.800 € + BEZ (2.048) = 14.848 €

Santa Barbarako parkeko ekipamendua eta eraikuntza lanen zuzendaritza: 2. fasea.

Erabaki da Santa Barbarako parkean dagoen ekipamendua berritzeko obrei dagokien 2. fasea eraikitzeko zuzendaritza zabaltzeko baimena ematea, hain zuzen ere M. A. B. arkitekto teknikoak egingo duena. Baita ere gastu gehigarria baimentzea, 4.650 € + BEZ (5.394 €), beti ere indarrean dagoen Aurrekontu Orokorrean dagokion diru atalaren kargura. erari ematea ebazpen honen berri, egiten duen lehen batzaraldian.

Faktura zerrenda

23 zk. duen fakturen zerrendaren berri eman da, 105.497,88 €; hori ikusirik, aho batez onartu da.

2009_11_09

San Martin: Egitaraua eta aurrekontua

San Martin egunaren egitaraua eta bere aurrekontua, 1.870 €, onartzen dira.

Ikastetxeak: Eskolaz kanpoko

jarduerak: Dirulaguntza

Onartzen da eskolaz kanpoko jarduerak diru eta, honako dirulaguntza hauek ematea 2009ko ekitaldiaren kargu:

Gainzuri.....	10.800 €
Ikastola-Lizeoa.....	19.732 €
Iparragirre Institutua.....	4.526 €
La Salle-Legazpi.....	13.410 €

Zumarraga Urretxuri U.T.E.: Mugitegi Industrialdean, D bidean, 32 zkian Garajea eta biltegirako jarduera espedienteak.

Tokiko Gobernu Batzar honen iritziz bidezkoa da eskatutako baimena ematea, beti ere hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartzen baldin badira.

2009_12_21

Gizon proba: Dirulaguntza

Aho batez erabaki da 1.000 euroko dirulaguntza ematea Herri Kirol Taldeari gizon probaren antolaketaerako.

Gabon kopa: Dirulaguntza

Erabaki da Gabon Kopako pilota partidak antolatzeke 350 euroko dirulaguntza ematea Goierri, K.E.ri

Urte Berriko igoera herrikoia Irimora: Dirulaguntza

Urte Berriko Irimoko igoera herrikoia antolatzeke 795 euroko dirulaguntza ematea Goierri, K.E.ri erabaki da.

Pagoeta auzoan dagoen hotel eraikina irakaskuntza zentrorako egokitze oinarritzko proiektua idaztea: Kontratu txikiaren esleipena

Aho batez onartu da gastua baimentzea, beti ere indarrean dagoen aurrekontuan dagokion diru-atalaren kargura eta JM.D.K. eta A.L. arkitektoei Pagoeta auzoan dagoen hotel eraikina irakaskuntza zentrorako egokitze oinarritzko proiektua idaztea beti ere aurkeztutako proposamenaren arabera, eta ondorengo baldintzetan:

- prezioa: 17.000 €, + 2.720 BEZ, guztira 19.720 €

Irimo mendiko hego-ekialdeko isuria egonkortzeko hidrologia - eta baso- neurri zuzentzaileen azterlana, Ingeniaritza biologikoa erabiliz: Kontratu txikiaren esleipena

Erabaki da gastua egiteko baimena ematea, beti ere indarrean dagoen Aurrekontu Orokorreko diru atalaren kontura eta Ikerlur enpresari esleitu, kontratu txiki modalitatean Irimo mendiko hego-ekialdeko isuria egonkortzeko hidrologia - eta baso- neurri zuzentzaileen azterlana, ingeniaritza biologikoa erabiliz talekuan ateak aldatzeko lanak beti ere aurkeztutako proposamenaren arabera, eta ondorengo baldintzetan

- prezioa: 10.000 €, + 1.600 € BEZ barne, modu honetan guztira 11.600 €.
- epea: 3 hilabete, esleipenaren jakinarazpena egiten denetik.

Irimo mendiko hego-ekialdeko isuriko irristaduren egonkortasunari aplikagarriak diren Bioingenieritzako teknikak aplikatzeko posibilitateen azterlana: kontratu txikiaren esleipena

Aho batez erabaki da gastua egiteko baimena ematea, beti ere indarrean dagoen Aurrekontu Orokorreko diru atalaren kontura eta Sangalli, Coronel y Asociados S.L. enpresari esleitu, kontratu txiki modalitatean Irimo mendiko hego-ekialdeko isuriko irristaduren egonkortasunari aplikagarriak diren Bioingenieritzako teknikak aplikatzeko posibilitateen azterlanak lanak beti ere aurkeztutako proposamenaren arabera, eta ondorengo baldintzetan

- prezioa: 10.000 €, + 1.600 € BEZ barne, modu honetan guztira 11.600 €.
- epea: 3 hilabete, esleipenaren jakinarazpena egiten denetik.

Fatxadak margotzeko programa:

Iparragirre 22. Dirulaguntza

Onartu da Iparragirre 22ko jabekideei 2.267,59 € dirulaguntza ematea, aurrekontuaren %10ari dagokiona.

Raci txartategia: Mugitegi Industrialdean,

E bidean, 1-3 zkietan txartategiaren jarduera haunditzeke jarduera baimena

Erabaki da baimena ematea, legeak markatzen dituen baldintzak bete beharko dituelarik.

Pinturas Mugitegi, S.L. Mugitegi industrialdean, B bidean 6 - behea industri pintura tailerrarentzako jarduera baimena

Erabaki da baimena ematea, legeak markatzen dituen baldintzak bete beharko dituelarik.

AUZOLAN programako formazio ekintzak: Prozedura negoziatu bidezko esleipena

Erabaki da auzolan programaren barruko formazio ekintzak garatzeko prozedura negoziatua Erroak-Sartu enpresari esleitzea behin-behingo, ondorengo baldintza hauetan:

prezioa: 43.433,24 €, BEZ barne.

Gazte Astea: Egitaraua eta aurrekontua

Onartu da Gazte Asteke jarduera egitaraua onartzea baita ere Urretxuri dagokion gastua, guztira 6.365,87 € zenbatekoa.



Urretxun edateko ur-horniduraren sarea berritzeko proiektua: Onespena

Erabaki da "Edateko ur-horniduraren sarea berritzeko proiektua" delako proiektu teknikoa onartzea eta SPKLren 93 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratazio espedientea hasia.

Ur-horniduraren sarea berritzeko lanak esleitzeko kontratazio espedientea: Plegua onartzea

Erabaki da publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzeko kontratua; kontratua arautuko duten Baldintza Administratibo Berezi, Ekonomiko eta Teknikoen Plegua onartzea eta derrigorrez bete beharreko gainontzeko trasteak betetzea, kontratua formalizatu arte.



Urretxuko ur-hornidura sarearen sektorizazio proiektua: Onespena

Aho batez erabaki da "Urretxuko ur-hornidura sarearen sektorizazio proiektua" delako proiektu teknikoa onartzea eta SPKLren 93 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratazio espedientea hasia.

Ur-hornidura sarearen sektorizatorako lanen esleipena egiteko kontratazio espedientea: Plegua onartzea

Aho batez erabaki da publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzeko kontratua; kontratua arautuko duten Baldintza Administratibo Berezi, Ekonomiko eta Teknikoen Plegua onartzea eta derrigorrez bete beharreko gainontzeko trasteak betetzea, kontratua formalizatu arte.



Irisgarritasuna egokitzeko obretarako dirulaguntza eskaera: Alkatetzaren ebazpena berrestea

Joan zen azaroaren 16an emandako Alkatetzaren ebazpena irakurri da, hain zuzen ere irisgarritasuna egokitzeko obretarako dirulaguntza eskaerari buruzkoa eta aho batez onartu da.

Gainzuriko obretarako dirulaguntza eskaera: Ebazpena berrestea

Joan zen azaroaren 30ean Alkatetzak emandako Ebazpena irakurri da, hain zuzen ere Gainzuriko obretarako dirulaguntza eskaerari buruzkoa, eta aho batez onartu da.



Egun baliogabeak

Erabaki da Urretxuko Udaleko Administrazioari dagokionez, ekainaren 24a, uztailaren 2a, eta abenduaren 13a, 24a eta 31 jaieguntzat jotzea eta, ondorioz, egun horietan tokatzen den edozein epe, obligazio eta eskubideren epemuga hurrengo lanegunera atzeratzea.

Urretxu eta Zumarragako udalek elkarrekin egiten dituzten jardueren ondorioz sortutako gastuen banaketa: Portzentaiak

Erabaki da lehendik ezarrita dagoen irizpidea finkatzea: udalari bakoitzak ekitaldi bakoitzeko urtarilaren 1ean duen biztanle kopuru ofizialaren arabera hauxe da ordaindu beharko lukeena:

Urretxu: %40,62
Zumarraga: %59,38

Euskara TELP tailerra

Erabaki da aurkeztutako proposamena eta Urretxuri dagokion gastua, 640 €, onartzea.

Kreditu aldaketarako espedientea: a) Kreditu gaitzea

Aho batez onartu da 5 zk duen KREDITU HABILITAZIO erregimenaren bidez egin beharre-

ko kreditu aldaketarako espedientea onestea 397.344,80 € zenbatekoaz.

EB-Berdeak / Aralar aurkeztutako mozioa

EB-Berdeak/Aralar taldeko zinegotzi jaunak aurkeztutako mozioa irakurri da, Aminatou Haidar aktibista saharaiarrari elkartasuna adierazteko mozioa eta aho batez onartu da.

Faktura zerrenda

28 zk. duen fakturen zerrendaren berri eman da, 31.378,22 €; hori ikusirik, aho batez onartu da.

2010_01_18

Toki erakundeetan inbertsioak egiteko Fondoak: Proiektuen onespena.

a) Urretxuko udaletxea berritzea (1. fasea)

Aho batez erabaki da "Urretxuko udaletxea berritzea. 1. fasea" inbertsio proiektuaren memoria eta bere aurrekontua, 396.079,37 €, onartzea, eta era berean Tokiko Inbertsiorako Fondo Estatala sortu zueneko azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege Dekretuaren bitartez egindako deialdian aurkeztea, Tokiko Enplegu eta Iraunkortasunerako Estatu Fondoak sortu duenekoak.

b) Udal liburutegiaren eta KZgunearen arteko lotura

Aho batez erabaki da "Udal liburutegiaren eta KZgunearen arteko lotura" inbertsio proiektuaren memoria eta bere aurrekontua, 141.728,43 €, onartzea, eta era berean Tokiko Inbertsiorako Fondo Estatala sortu zueneko azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege Dekretuaren bitartez egindako deialdian aurkeztea, Tokiko Enplegu eta Iraunkortasunerako Estatu Fondoak sortu duenekoak.

c) Santa Barbarako nekazaritza ingurua urez hornitzeko ur biltegia eraikitzea.

Aho batez erabaki da "Santa Barbarako nekazaritza ingurua urez hornitzeko ur biltegia eraikitzea" inbertsio proiektuaren memoria eta bere aurrekontua, 198.620,20 €, onartzea, eta era berean Tokiko Inbertsiorako Fondo Estatala sortu zueneko azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege Dekretuaren bitartez egindako deialdian aurkeztea, Tokiko Enplegu eta Iraunkortasunerako Estatu Fondoak sortu duenekoak.

Ur-horniduraren sarea berritzeko lanak: Behin behineko esleipena: prozedura negoziatua

Onartu da ur-horniduraren sarea berritzeko lanak, prozedura negoziatu bidez, Aguas del Norte, S.A.enpresari esleitzeko behin-behineko, ondorengo baldintza hauetan:

- prezioa: 173.103,62 €, BEZ barne.

Ur-horniduraren sarearen sektorizatorako lanak: Behin behineko esleipena: prozedura negoziatua.

Onartu da ur-hornidura sarearen sektorizatorako lanak, prozedura negoziatu bidez, Aguas del Norte, S.A.enpresari esleitzeko behin-behineko, ondorengo baldintza hauetan:

- prezioa: 137.307,99 €, BEZ barne.

Gaindegia: Dirulaguntza

Aho batez onartu da Gaindegia Elkarteari 3.380,50 euroko dirulaguntza ematea, hain zuzen ere 0,50 €/biztanleko.





El bar-restaurante de Santa Bárbara en marcha

Kizkitza Ugarteburu



Tras un período de varios meses de obras, el bar-restaurante de Santa Bárbara abrió de nuevo sus puertas en febrero. En el siguiente artículo detallamos las características del proyecto arquitectónico, dirigido por el estudio Toki y los propósitos de Iñaki Moyua, encargado de la gestión del bar-restaurante y del albergue.

El pasado mes de febrero se inauguró el nuevo bar restaurante y albergue de Santa Bárbara, tras la remodelación efectuada por el estudio de arquitectura Toki, dirigido por el urretxuarra Ibon Salaberria y Amaia Casado, así como la empresa local Construcciones Mendiola.

El proyecto se ha centrado en la multiplicidad de usos, recuperando el equipamiento público y poniendo en valor la ermita, que tras la obra, ha quedado más al descubierto.

La zona de acceso principal, libre del paso de vehículos, se ha convertido en un lugar para el disfrute, el ocio, formación y el encuentro de los diferentes usuarios del parque.

Iñaki Moyua es el encargado de gestionar el bar-restaurante y el albergue de Santa Barbara.

Tras su apertura, Iñaki se muestra muy contento con la acogida: "La cantidad de gente que acudió los dos primeros fines de semana fue terrible, eso quiere decir que la acogida ha sido muy buena, aunque con tanta gente ha sido imposible hacer el gusto a todos".

Baselizaren zati handiagoa dago orain bistan.

Entre semana ofrecen dos menús a 11 euros; el fin de semana, un menú especial. Además bocadillos, pintxos y platos combinados. "Estamos abiertos a todo tipo de propuestas y ofrecemos menús a medida" afirma Iñaki.

El horario es de lunes a viernes de 11:00 a 20:00-20:30. "No hemos decidido el horario de cierre; ahora cerramos a esa hora, pero en primavera y en verano ampliaremos el horario. El viernes, sábado y domingo no tene-

mos estipulado el horario de cierre, pero la cocina se cierra a las 22:30".

En este momento la prioridad de Iñaki es la puesta en marcha del bar y del restaurante. El albergue se pondrá en marcha a partir del verano, atendiendo a las familias y cuadrillas interesadas, pero será ya en septiembre cuando "organicemos estancias de uno, dos o tres días para es-

Aterpetxea udan irekiko da.

colares, incluyendo además del alojamiento, propuestas educativas y de ocio, con el museo de las abejas "Aikur", con los caseños Ipeñarrieta y Agerre cuenta Iñaki.

CONCESIONES ADMINISTRATIVAS EXPLOTACION BAR MERENDERO DE SANTA BARBARA

CONCESIONARIO	FECHA CONCESION
Ignacio Izaguirre Tellería	22-07-1960
Francisco Ayastui Sasieta Carmen Goenaga Galarraga	01-06-1967 15-05-1983
M ^a Jesús San Vicente Echeverría	19-09-1986 01-01-1988
José Ramón Ocariz Legorburu	31-10-1996
M ^a Jose Aramburu Esnaola	24-05-1999
Estíbaliz Gutiérrez Irizar Alberto García Corcuera	22-10-2002
Joseba Izaguirre Berasategi	14-11-2003
Joseba Jauregi Iturrioz Pabla Alicia Blanco Saballos	01-12-2005

Santa Barbarako taberna-jatetxeak otsailean ireki zituen bere ateak, Ibon Salaberria urretxuarrak eta Amaia Casado arkitektoek zuzendu duten bermoldaketaren ondoren.

Iñaki Moyua ordiziarra, taberna-jatetxe eta aterpetxea kudeatzeko arduraduna, lehenengo asteak igaro ondoren, pozik azaldu da jendeak egin dion harrera-ekin.



Urretxuarren iritziak / Preguntas al ciudadano

Maite Quevedo - M.^a Carmen Viedma

Zer iritzi duzu Santa Barbarako eraikin berriari buruz? Bazenekien goiko pisua aterpetxea dela?

KRISTINA MOYUA

Jakin dut duela gutxi zabaldu berri dela, baina oraindik ez naiz joan. Badut gogoan nola gelditu den ikusteko. Egia esan, behar zen Santa Barbaran zerbait jateko leku bat. Aterpetxea ere badela ez nekien baina ongi iruditzen zait, toki aproposa da.



“Behar zen Santa Barbaran zerbait jateko leku bat”

JESUS ANTIA

“Desberdina da, ez dauka lehen zenarekin zer ikusirik, baina ongi dago”

Bai izan naiz eta kanpotik zein barrutik ere ikusi dut. Desberdina da, ez dauka lehen zenarekin zer ikusirik baina ongi dago. Goian jarri den aterpetxeari dagokionez, ikusi egin beharko da nola funtzionatzen duen.



EMILIO NEGUERUELA



Una vez inaugurado no he estado, lo vi cuando aún no estaba terminado del todo, pero me pareció que el edificio estaba bien. Es bonito, de madera. Lo que hace falta ahora es que el servicio del bar-restaurante funcione bien.

“El edificio es bonito, de madera. Hace falta que el bar-restaurante funcione bien”

MARI JOSE OLAZABAL

Ez, oraindik ez naiz igo baina interneten ibili naiz nola gelditu den begiratzeko. Anaia zabaldu zuten egunean izan zen eta oso polita gelditu dela esan zidan. Bai, banekien aterpetxea ere badela eta ongi iruditzen zait, jendea bertara etortzeko modu bat da.



“Aterpetxea egotea jendea bertara etortzeko modu bat da”



¿Que opinión tienes sobre el nuevo edificio de Santa Bárbara? ¿Sabías que la planta superior es un albergue?

AINTZANE BERASATEGI

Berandu izan nuen inaugurazio egunaren berri eta ez nintzen joan. Dena den, ia bukatuta zegoenean ikusi nuen eta asko gustatu zitzaidan. Hori bai, eskailera eta espaloiaaren arteko distantzia txikia zela iruditu zitzaidan. Aterpetxearena ondo dago.

“Eskailera eta espaloiaaren arteko distantzia txikia zela iruditu zitzaidan. Aterpetxearena ondo dago”



JOSE LUIS AYASTUI

“La gente que lo ha visto me ha comentado que está muy bien”



Todavía no he subido pero ya tengo ganas de ver como ha quedado. La gente que lo ha visto me ha comentado que está muy bien. Por fuera ya sé como ha quedado porque lo vi cuando quedaba poco para terminar pero tengo ganas de verlo por dentro.

MALEN GORROTXATEGI



Herenegun izan nintzen. Ibil-tzera joan eta zerbait hartzera sartu nintzen. Ongi gelditu dela iruditzen zait. Lehengoarekin konparatzen badugu oso desberdina da baina ondo dago. Egurrezko estruktura polita dauka.

“Lehengoarekin konparatuta oso desberdina da baina ondo dago”

EUSEBIO GORDILLO



“Por lo que he oído y leído debe de estar muy bien”


Todavía no he estado. Por lo que he leído en la prensa y lo que me han comentado, debe de estar muy bien. Lo del albergue me parece bien. Cuando mejore el tiempo ya daré una vuelta para verlo.



Hizkuntza gaitasunaren bilakaera Urretxun, 1980tik 2006ra

Aztiker

Hizkuntza gaitasuna. Urretxu, 1981 - 2006



Ikerketa soziolinguistikoaren datuen arabera, horra hor urretxuarren hizkuntza gaitasunaren bilakaera:

- **EUSKALDUNAK:** 1980tik 2002 urtera haziz joan den kopurua da, eta horretan, populazioaren %38'1 euskaldunak izatetik, %54'6 izatera iritsi da. 2002urtetik 2006ra berriz, euskaldunen kopurua bere horretan mantendu da, hots, populazioaren %54'6koa da euskalduna.
- **ERDALDUNAK:** erdaldunak diren herritarren kopurua, 1980 urtetik hona jetsi da, %49'5 izatetik egun %25'1 izateraino. Esan daiteke, horietan, jetsiera, **EUSKALDUNAK** eta **IA EUSKALDUNAK**

izatera iritsi direnen mesedetan izan dela bilakaera.

- **IA EUSKALDUNAK:** ia euskaldunak diren pertsonen kopurua igo egin da, 1980 urtetik 2006ra. Aipagarria da, 1986 urteko inkestaren emaitzekin konparatuta, ia euskaldunen kopuru antzekoa dela azken datuetan, hots, 2006ko inkestaren datuetan.

Beraz, eta betiere azken inkesta soziolinguistikoaren arabera, urretxuarren gehiengoa, %54'6a euskalduna da, %25'1 erdalduna, eta %20'4 ia euskalduna da.

Informazio gehiago:
www.urretxu.net

"Udal administrazioa" atalean, "Urretxu zenbakitan" azpiatalean

Kaixo Gazte / Kaixo Joven

Marina Aparicio

Ana Isabel Iturbe

Ikastolan “Amama Benidorrera” antzezlanean parte hartu zuenetik (bere ikaskide zirenak ondo gogoratuko dira antzezlan sonatu eta oroigarri honekin), urte batzuk pasa dira jadanik, eta badirudi antzerkirako afiziorik ez duela galdu Marina Apariciok, hortan jarraitzen baitu.

Lehen urratsak Urretxu-Zumarragako antzerki taile-rreran emateaz gain, Iruñako Antzerki Eskolan ikasi zuen interpretazioa, ikastaro ugari ere eginez: Eusebio Calonge (La Zaranda), Ander Lipus (F.T.I)...



Antzerki Eskolan bukatzean, “¿Tú eres tonto idiota o qué? Hi ergela haiz?” antzezlanaren sortu zuten bere irakasle izandako Javi Pérez, Uxua Garde ikaskide eta hiruron artean. Bereziki gogoratzen duen duen antzezlanaren da.

Parte hartutako antzezlanen artean “Inalanbrikak” (Vaivén Taldea), “Zeta” (Hika Teatroa) eta “Trena” (Teatro Paraíso) ditugu, besteak beste.

Azaroan Bilboko BAD Antzerki Jaialdian “Leyendas urbanas” (Lanovia & Trashumantes antzerki taldearekin) aurkeztu zuen. Eszenatokiaren gainean “ni, 2x2-ko pantalla eta los Saicos-en musika!!!”. Urretxu-Zumarragan egiteko irrikitan dago Marina.

Bere lehenengo antzezlanaren Lanovia izenpean “Leyendas Urbanas” izan da, eta horren ondoren beste asko etorriko direla ziur dago.

Antzerkiak, beste hainbat gauzaren artean, bere herriko aldizkarian ateratzeko aukera eskaini diola esaten du Marinak erdi txantxetan.

Horrela jarraitu, Zumarraga-Urretxun antzeztzen ikusi nahi zaitugu!!

Ainhoa Sanz, sasoi betean

Gorka Azkarate

Ainhoa Sanz korrikalari urretxuarrak urteak daramatza, oraindik gaztea izanagatik, lorpen garrantzitsuak erdiesten. Promesa mailan dabil aurten, eta eremu ezberdina uztartu ohi ditu, urte sasoiaren arabera. Une honetan krosean dabil, eta segidan aire libreko pistako denboraldia hasiko du.

Izan ere, denboraldiko egutegia modu horretan bideratzen du urtero: udaberrira arte krosean eta jarraian aire librean. Aurten 3.000 metro obstakuloetan proba egin nahi luke eta baita 5.000 zein 10.000 metroko lasterketetan, marka edukitzeko helburuarekin, gehienbat.

Ainhoa Sanz, Goierriko Garaia atletismo taldekoa da. Une honetan, elektronikako goi mailako zikloa ikaste ari da UGLE-n, eta sarritan

ez da erraza ikasketak eta kirola uztartzea, astean 6 egunetan entrentatzen baitu. Intentsitate ezberdineko saioak egin ohi ditu, prestatzen ari den probaren arabera.

Euskal Herrian eta estatuan antolatzen diren lasterketetan ez ezik, hemendik kanpo ere korri egin izan du. Horrela, bereziki gogoratzen du orain dela urte batzuk Espainiako selekzioarekin Keniako munduko txapelketara joan zenekoa; esperientzia oso ona eta aberasgarria izan zen beretzat.

Bere muga non ikusten duen galdetuta, profesionaletara heltzea gustatuko litzaiokeela aitortzen du Ainhoak; punta-puntara iristea oso zaila dela badakien arren, bere ize-na hor egotea eta nolabaiteko zeresana ematea ere ez legoke gaizki.



Urretxuko txistulariak, mende Erdiko ibilbide oparoa

Gorka Azkarate



▲ Urretxuko Txistulari Taldea 2009ko Euskal Jai egunean.

Urretxuko txistulari taldea sortu zela 50 urte beteko dira aurten. 1959ko Euskal Jaiak emandako bultzadaren ondorioz hasi ziren txistulariak elkartzen, eta urtebete beranduago, 1960ko Euskal Jai egunean, egin zuten euren jendaurreko estraineko agerraldia. Urteurren seinalatua merezi bezala ospatzeko, hainbat hitzordu berezi izango dira urtearen joanean.

Santi Gutierrez nekazina (2003ko San Juan bezperan zendu zen arte lanean buru-belarri aritutakoa) eta Joxe Perez izan ziren hastapenean taldea sortzearen ardura hartu zutenak. Hainbat urtetan Ramon Esnaolak emandako laguntza ere handia izan da, berak baitzuen gazteenei

txistua jotzen erakusteko ardura. Asko dira Esnaolaren esanetara txistua ikasitakoak.

Mende Erdiko ibilbidean, 240 lagun inguru pasako ziren orotara txistulari taldetik. Horiek, gutxienez kalejira bat jotakoak kontatuz; izan ere, gehiago ere badira, ikasten ibili bai, baina kalerako jauzia ematera heldu ez direnak. Handia da, zalantzarik gabe, Urretxu bezalako herri batean txistuaren inguruan mugitu den jende kopurua.

Egun, 15-20 lagunek osatzen dute Urretxuko txistulari taldea. Horien artean, Jose Javier Larrañaga eta Jose Mari Lasa dira ardura nagusia daramatenak. Jostenka 1963an sartu zen taldean, eta Lasa 1967an. Gazteagoen laguntzarik falta ez zaien arren, beraiek dira taldearen ardura nagusia bizkar gainean daramatenak. Bestalde, aurten ospatuko den urteurrena begien bistan, garai batean

***Mende Erdiko ibilbidean,
240 lagun inguru igaro da taldetik.***

taldekide izandako txistulari mordoxka osteran elkartzen eta entseiatzen hasi zen orain urte bi inguru: "beteranoen" taldeaz ari gara. Ilusiorik ez zaie falta, eta igandetako ohiko kalejira eurek jo ohi dute hilean behin.

Txistulari taldeak hainbat ekin-tzatan hartu ohi du parte urtean zehar, eta beti daude gaine-rako kultur taldeen jaialdi eta ekimenetan ere parte hartzeko pronto. Horrez gain, inguruko hainbat herritara ere hutsik egin

gabe joan ohi dira urtero, herri horietako txistulariak Urretxu-ra etortzen diren modu berean. Txistulari taldean guztiak dira bolondres, eta Udalak kalejirak jotzeagatik ordaintzen dien dirua, taldeko gastuetara bideratzen dute.

Urte osoan zehar luzatuko dira ospakizunak.

La agrupación de txistularis de Urretxu cumple este año sus bodas de oro, y para celebrar como se merece estos cincuenta años de existencia, han preparado un completo programa de actividades especiales que se alargará durante todo el año. El programa incluye, entre otros, diversos actos protocolarios, así como pasacalles, comidas de hermandad, la grabación de un disco y la publicación de un libro que recoge la andadura de la agrupación durante todos estos años.

50. urteurrena ospatzeko prestatu den egitaraua

Martxoaren 13ko Euskal Herriko Txistulari Elkartearen batzarraz gain (kalejira, kanpotarrei harrera, meza, batzarra, domina banaketa, bazkaria, musikaz alaituriko bazkalostea eta erro-meria), hainbat ekintza egingo dira urtean zehar. Ekainean, aspaldiko proiektu bat gauzatzeko asmoa dute txistulariek: Ramon Esnaolak konposatutako

abestiak bilduko dituen diska kaleratzea. Ospakizun nagusia, bestalde, irailean egingo da, irailaren 12an, festen aurreko asteko igandean. Helburua taldekide izandako ahalik eta lagun gehien elkartzea izango da. Horrez gain, taldearen historia jasotzen duen liburua eta DVDa aurkeztuko dira irailean, eta hitzaldiren bat ere egingo da.



▲ Urretxuko Txistulari Taldea 1964ko Euskal Jai egunean.



Kaixo 100 **Laguntzaileen ikuspegia**

M.^a Carmen Viedma



▲ Ezkerretik eskubira: Ana Isabel, Mari Carmen, Irene, Kizkitza, Luisan, Gorka, Miren eta Jon. Goian Maite eta behean Idoia.

Agian ez zara konturatu, irakurle, baina esku artean daukazu KAIXO ale hau 100. alea da. Eta zenbaki borobil honetan ez daukagu elkarrizketarako Urretxuko ospetsu bat, azkenaldi honetan aritu den KAIXOko kolaboratzaile-taldea baizik.

_Hasteko, Kaixo aldizkariarekin lehen harremana noiz eta nola izan zen kontatzeko eskatu diet. Hona hemen beraien erantzunak:

Jon Castrillo: Lehenengo Kaixo etxera iritsi zenean faltan nabaritu nuen denborapasa atala, magisteritza ikasten hasi berria nengoen eta umeentzako materialak euskararekin lotuta prestatzen ari nintzenez, bigarren alerako zerbait prestatu nuen eta Jose Luis Garmendiari eraman nion. Oso ondo hartu zidan egindako lana eta animatu egin ninduen jarraitzeko, eta orain arte.

Gero atal guztiak jorratu behar izan ditut, baina hori denoi tokatu zaigu.

Ana Isabel Iturbe: Nik betidanik izan dut idazteko zaletasuna; gainera lagunok gaztetatik ibili gara kultur etxe honetan Santa Lutzian edo mineraletan parte hartzen, eta orain dela 12 urte, gutxi gorabehera, lagun batek Kaixorako kolaboratzaileak behar zirela esan zidan, eta harrez gero hemen nago, oso gustura gainera.

Kizkitza Ugarteburu: 1991 edo 1992. urtean, ez naiz ondo gogoratzen, Leioan kazetaritza ikasten ari ginen lau lagun elkartzen ginen liburutegian. Behin, Koldo Argandoñak esan zigun jendea behar zela Kaixorako, eta horrela, laurok batera hasi ginen. Ni bakarrik gelditzen naiz oraingo talde honetan.

Irene Calvillo: Ni lanarekin batera hasi nintzen, baina gero, lanaz aparte, herriko hainbeste gai

Hace 30 años el “Kaixo” se hacía de forma casi artesanal.

ikusita, hainbeste pertsona modu batera edo bestera Kaixorekin lotuta... aportazioa gero eta haundiagoa da, eta azkenean ez da lan kontu bat soilik.

Maite Quevedo: Hitzan lan egiten nuenez, askotan etortzen nintzen informazio bila kultur etxera, behin kolaborazio txiki bat egin nuen Kaixorako, eta gero gelditu egin nintzen "laburrak" atala egiten.

Miren Castillo: Ni ere lanarekin lotuta hasi nintzen. Ez zen oso momentu ona Kaixorako eta teknologia aldetik magia egiten genuen. Askotan kolaborazioak lortzen genituen, baina Jon eta bion artean aldizkari ia-ia osoa egiten genuen.

Luisan Téllez: Argazkia elkarteko kide nintzen eta kolaborazioa eskatu ziguten argazkiak ateratzeko. 15 bat urte izango dira hasi nintzenetik, eta gaur arte saiatu naiz emandako enkargu guztiak egiten.

Idoia Narbaiza: Ni ere Argazkia elkartean nenbilen eta kultur etxeok idazteko gonbitea luzatu zidaten. Denetik egitea egokitu zaidan arren, historia oso gogokoa dudala eta, azken bolada honetan historia txokoa aritu naiz gehienbat.

Gorka Azkarate: Orain dela bi urte edo... bertso eskolari buruzko erreportaia zegoen pentsatuta, eta nik egin nuen. Gero, jarraitzeko animatu ninduten, eta jarraitu nuen.

M.Carmen Viedma: Nik, lehenengo zenbakietatik irakurle izanda, betidanik pentsatu nuen artikulutxoren bat noizbait idatziko nuela.

Kaixo batean ohartxo bat ikusi nuen kolaboratzaileak eskatuz, momentua zela iruditu zitzaidan eta Jon Castrilloarekin jarri nintzen harremanetan. Hori, orain dela hamar urte gertatu zen.

_Kontakizunen bat edo anekdotaren bat ba al daukazu?

Jon: Behin elkarte batera elkarriketa egitera joan nintzen; presidentea ez zegoela eta laster etorriko zela esan zidaten eta ordu erdi pasa nuen inork kasurik egin gabe, han, mahai

batean eserita, tonto modura.

Kizkitza: Argazkiak ateratzeko momentua oso zaila da, horregatik kaleko iritziak egiteko oso gaizki pasatu dugu zenbait momentutan.

Irene: Eta elkarriketak lortzeko ere bai; irudia atera behar zela esatean asko izutu egin zaizkigu!

Miren: Eta zenbat aldiz, photoshop ez zegoenean, argazkien moldaketak guraizez egin ditugun!

Los colaboradores hemos hecho de todo para la revista.

_KAIXO: Eta jarraitzeko asmorik ba al daukazu?

Denok batera:

- Erreleboa oso zaila denez...
- Agian orain da momentua deialdia egiteko...
- Baina bai, total, 3 ale urtean ez da hainbesterako...
- Gorka Azkarate, azkena sartu dena, gure erreleboa izango da.

Gorkak: Bai zera, ni bakarrik erreleboa izateko...



“La imprenta”

Jon Castrillo

Seguro que más de uno de vosotros con sólo leer el título de este artículo ha traído a su memoria la imagen de aquel singular txoko ya desaparecido; y es que, tanto si se acudía al taller como a la tienda, siempre se decía “voy a la imprenta”. Así se conocía en Urretxu a Gráficas Iparragirre.

Al celebrar ahora el doble acontecimiento de cumplir 30 años coincidiendo con la publicación del número 100 de Kaixo, no podíamos dejar pasar la oportunidad de reconocer públicamente la labor de una empresa, personificada en Nemesio Armenteros, uno de sus primeros trabajadores y posteriormente dueño de la misma que, lejos de limitarse a cumplir estrictamente su labor comercial, se implicó, ya desde su inicio, de manera total aportando y aconsejando mejoras tanto estratégicas como de diseño, ajustando presupuestos y apurando plazos para que Kaixo pudiera cumplir con la cita que tenía con cada familia urretxuarra.

Cuando Nemesio entró a trabajar en “la imprenta” corría el año 1976. Por entonces el taller se encontraba situado en el nº 28 de la calle Iparragirre, en un local propiedad de D. Dionisio Oñatibia quien en el piso superior recibía en consulta médica a sus numerosos pacientes, por lo que prácticamente todos los urretxuarras conocían sobradamente la ubicación de la imprenta.

Más tarde, se procedió a la apertura de una tienda contigua atendida por Cristina Jauregi y Tere Iturrioz donde se comercializaban diversos productos de papelería.

Nemesio recuerda muy bien los orígenes de Kaixo. Era hacia finales de 1979 cuando a propuesta del ayuntamiento “la imprenta” se involucró de manera entusiasta en esta aventura que nadie sabía lo que podía durar. Su labor era diversa: pasar los artículos a máquina, fotocopiarlos en “Autoescuela Odriozola” (por ser más barato), y luego, en la mesa de Plenos del Ayuntamiento, estructurar

la revista entre todos: operarios, colaboradores, concejales y hasta el mismo alcalde.

Pero la técnica avanza rápido y trabajos antes manuales como la ordenación de las páginas o la colocación de las grapas pasó a realizarse mecánicamente. La utilización de nueva maquinaria trajo consigo la necesidad de mayores espacios de trabajo. Por ello en 1989, Gráficas Iparragirre se trasladó a Mugitegi Industrialdea para mantener su actividad. En la actualidad es la hija de Nemesio, Eli, la encargada del diseño de la revista y de dirigir el proceso de impresión.

Mientras, el edificio donde se encontraba la antigua imprenta fue rehabilitado, manteniendo su fachada original; la cual, constantemente nos rescata de la memoria la imagen de aquel portal en constante penumbra que había que cruzar para, tras subir unos pocos peldaños, acceder, empujando una puerta semiabierta, al interior de “la imprenta” de Urretxu. Allí nació hace 30 años nuestro KAIXO. Zorionak a todos.



Los encargados de elaborar el Kaixo en sus inicios frente a una de las máquinas más antiguas que sigue en marcha. De izquierda a derecha: Nemesio, Santi y Miguel.

Kaixo txiki

Urretxu-Zumarragako Bertso eskolako kideek aurkezten digute...

Ana Isabel Iturbe


Antzerki ta bertso emanaldi dibertigarria. Labeaga aretoan,
martxoaren 28an, 17:00etan. Ondo pasatzeko aukera aparta.
Zatoz txiki ta bertsoaz gozatu!!!



"Bizikletaren misterioa"

Denok ezagutzen dugun herri batean,
Miren izeneko haur bat bizi zen
guraso ta ahizparekin.

Egunero eskolara joan
beharrak askotan
aspertu arren, eskolaz
kanpo bazekien bere
lagunekin ondo pasatzen.
Baina egun batean...
norbaitek bizikleta lapur-
tuko dio, ta orduan, komeriak!!!!..



Bertso
eskolako kideak

*Urteurrenak zuri begira
jarri gaitu miresmenez,
egun batean ixilik gure
etxera sartu zinenez.
Herriko berri nagusienak
jorratu ohi dituzunez,
zu irakurriz, denok jakitun
direnez ta ez direnez...
Jadanik, Kaixo, gure bizitzen
osagarri bat zarenez,
mila zorion ta beste ehun
ale bete, gutxienez!*



100

*Doinua:
"Arratsaldeon eta muxu bat"*

*Bertsoa:
Urretxu-Zumarragako
Bertso Eskola*

Kaixo
Urretxuko Udal Aldizkaria

100³⁰ urte
ale kalean

www.urretxu.net